




'MONDRA' FUTBOL TALDEKO AURPEGI BERRIAK

Arrasate

P R E S S

1995eko
irailak 1
286. zenb.



Txirta
antzerki taldea



Arrasate Musikal

DATORREN IKASTURTEAN PROIEKTU BERRIAK

KONBOAK

Rock, Pop, Jazz eta Folk musika taldearen erabilpena.
Baxu elektrikoa, Bateria, Latin perkusioa. Piano modernoa.
Armonia, Jazza, inprobisazioa.



ATZERATUENDAKO PROGRAMA

Musika eta instrumentua (Orff sistema, Aschero sistema).
Dinamika eta psikomotrizitatea.
Entzuketak.



INSTRUMENTU ETA ESPEZIALITATEAK

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

HELDUENDAKO PROGRAMAK	BONBARDINA
MUSIKA HIZKUNTZA	KITARRA
SOLFEOA	BAXUA
HISTORIA, ARTE, ESTETIKA	BATERIA
ERA MUSIKALAK	PERKUTSIOA
KAMARAKO MUSIKA	BIBOLINA
TRANS ETA REPENT.	BIOLA
ARMONIA	BIOLONTXELOA
KANTUA	KONTRABAXUA
PIANOA	KORUA
AKORDEOIA	BANDA
TXISTUA	ORKESTRA
KLARINETEA	TALDE INSTRUMENTALA
OBOEA	BALLETA
SAXOFOIA	TRONPA
FAGOTA	TRONBOIA
TRONPETA	



MATRIKULA EPEA ZABALIK

Irailaren 4tik 15era.

Lanegunetan, arratsaldeko 5etatik 9ak arte.

Posta Kutxatila 104 • 20500 ARRASATE • Tfnoak: 77 05 40- 79 06 83 • Faxe: 77 05 40

ORAIN DA ZURE AUKERA. ANIMATU!

Dakienak irakatsi

Matitslav Rostropovits Orkestra Zuzendaria azalpenak ikusi berriak ditugu Egunkarian. Letra larritan zioen: "Musikaz dakidan guztia irakatsi behar diet gazteei". Eta dirudie-nez, badu zer irakasirik: orkestra zuzen-dari izateaz gain, piano jole abila eta biolontxelista aparta omen da eta.

Pozgarria da honelakoak ikustea, sarritan ikusten baititugu bestelakoak ere: enpresa batetan ikusita nago departamen-duko buruak beste departamendukoei interesgarri zaiela dakien informazioa ez ematen. Berak bakarrik baliatu nahi zuen hartaz. Besteek ez zien meriturik egiteko aukerarik eman nahi, enpresaren kaltetan izanda ere. Norbera igo eta ahal bada eskailera botu, atzetik beste inor igo ez dadin.

Antzeko zerbait da herri bateko bizimoduari buruz liburua argitaratu duen irakasle gazte baten erantzuna. Hitzaldia emateko eskatu eta harro harro erantzun zuen: nire ikerlanaren berri nahi duenak, liburua eros dezala.

Eta kasu hauen ondoan ikusten ditugu beste batzuk beti laguntzeko eta irakaste-

ko prest agertzen direnak. Honelakoa zen On Manuel Lekuona ere. Andoainen bizi zela, eskola batera joan zen hango ikasleei euskal kultura zer zen irakastera. Hain jakintsua izan arren, apala zen On Manuel. Zenbat eta jakintsuago, orduan eta apalago, sagarrez beteta dagoen zuhaitza bezala. Zenbat eta sagar gehiago, orduan eta makurtuago.

Eta tailerlean, morroi bat lanean hasten denean, buru duen ofizialaren arabera izango du ofizioa ikasteko aukera. Ofizialak ofizioa irakatsi lezaioke edo eta beti lan berdina egiten eduki langile berria. Askotan entzun dut morroiari ofizioa irakasteaz arduratzen zen ofizial mekaniko baten esaldia: "Irakasten ez duen jakintsua, gizartearen lapurra da". Eta are nabarmenagoa zen bere laguntzeko jokaera, ondoan ezer irakatsi nahi ez zuten ofizialak lanean ari zirelako.

Bizitzan zehar, behin emaile dena hurrengoan hartzaile bilakatzen da eta baita alderantziz ere. Eta bizi iraun nahi badugu, inguruekiko lokarriak estutu beharko ditugu, elkarlanean.

RUFINA OLASAGASTI



• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnua: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Mainer Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnua: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jaurregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaita. ©ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo Kortabarria

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnua: 79 48 77
ARRASATE


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

**Euskal Herria
Askatu**

Badirudi Euskal Herrian errealtate bat baino gehiago dagoela bakea hitzarekin lotuta. Paktoko alderdi, talde sasipazifistek eta komunikabideek bakea lortzeko ezinbestekoa ikusten dute ETArein indarkeria desgertzea. Estatuaren biolentziak hainbat aurpegi ditu, goian aipatutako taldeen laguntzaz, Euskal Herriaren hitza eta eskubideak Espainiako konstituzioaren menpe daude alde batetik eta bestetik erabat legez kanpokoak diren giza eskubide indibidual eta kolektiboen bortxaketa (tortura, gerra zikiña, biolentzia poliziala, politika penitentziarioa, askatasun demokratikoen udatzea, komunikabideen guda zikiña, euskararen zapalkuntza,

e.a. luze bat).

Errepresio maila guzti hauek izkutatu, diximulatu eta babesteko orain ere Jose Maria Aldaiaren bahiketarekin, lehen Julio Iglesiasengan gertatu zen bezala, lazo urdina atera dute.

Hona hemen Julio Iglesias Zamoraren bahiketaren balantzea:

- Juan Calvo, Gurutze Iantzi eta Xabi Kalparsoro torturapean erahilak.

- 226 atxilotu eta hauetik 140 inkomunikatu.

- 47 espetxeratu.

- 53 tortura salaketa epailearen aurrean.

- Adarra mendiaren okupazio militarra.

- Etxez-etxe, garajez-garaje arakatu behar dugu Euskal Herri osoa (Xabier Arzalluz-en hitzak).

Emaizta beldurgarria

benetan, pertsona baten esku-bideak bermatzeko, ehundaka hiritarren eskubideak zantzen dira.

Bahiketa honen ondorioz Rosa Zarra donostiarrak "La Paloma"ko kontzentrazio batean Ertzantzaren karga baten ondoren bizia galdu zuela gogoratu beharrean gaudete.

Horrelakorik berriz gerta ez dadin eta *Euskal Herria Askatu* lemapean, hainbat aldarrikapen kaleratuko ditugu astelehenero, arratsaldeko 8etan Herriko Enparantzan.

Irailaren 4ean izango da lehena eta komunikabideen jokaera salatuko dugu. Badi-ra errealtateen erakusle baino gehiago errealtateen sortzaile diren komunikabideak.

Honen arabera argi asko geratzen da maila desberdinetako bahituak daudela:

- 1- Jose Maria Aldaia.
- 2- Publio Cordon Muni-lla (GRAPoren eskuetan).
- 3- Euskal Preso politikoak.


**ARRASATEKO
AMNISTIAREN ALDEKO
BATZORDEA**

Oharra

Zure iritziak gure gutu-
nen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutuan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzearekin izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu bari-
k dato-
rren gutunik ez dela argi-
taratuko.

Etxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!


Anna de Codorniu

Gogorra egin zaizu lanerako itzulera?



Olatz Zubizarreta
Ikaslea
(16 urte)

Irailaren erdialdean hasiko naiz eskolan baina uste dut gogorra egingo zaidala. Hilabete honetan ere jai izan beharko genuke.




Secundino Gutierrez
Langilea
(35 urte)

Astelehenean ekingo diot lanari eta gogorra izango da seguruenik.



Naiara Lazpiur
Ikaslea
(14 urte)

Egia esan eskolan hasteko gogoia daukat. Oporretan ondo nabil baina, ez zait inporta eskolan hastea.




Jose Ramon Iriarte
Langilea
(46 urte)

Beste urtebetez lan egin behar duzula pentsatzea nahiko latza da, baina zer egingo diogu!



Esther Mungia
Langilea
(24 urte)

Abuztuan lan egin dut eta oraintxe hartuko ditut oporrak. Gozada bat da besteak lanera eta zu oporretan zozela pentsatzea.



Andoni Arregi
Langilea
(42 urte)

Hilabete jai eduki eta lanean hastea izugarrizko aldapa da. Asko kostatzen da lanean hastea.



Atxen Castellano
Langilea
(41 urte)

Astelehenean hasi nintzen lanean eta lehenengo egunean txarto pasatu nuen. Bigarrena, berriz, hobeto.



Oscar Galdos
Ikaslea
(22 urte)

Oraindik oporretan nago, datorren hilera arte ez naiz ikasten hasiko eta. Beraz, oraindik ez naiz larritu.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABAETA



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Iguualtorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

Gurutze gorria

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

Monterrongo liburutegia

Monterron	77 01 05
-----------------	----------

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 1

Eguez eta gauzez : Estella, Bergara.
10ak arte: Corcuera, Musakola.

Larunbata 2

Eguez eta gauzez : Mozos, Bergara.
10ak arte: Amezua, Santamaina.

Igandea 3

Eguez eta gauzez : Mozos, Bergara.
10ak arte: Ruiz, Maala.

Astelehena 4

Eguez eta gauzez : Puy, Bergara.
10ak arte: Morales, San Andres.

Asteartea 5

Eguez eta gauzez : Estella, Bergara.
10ak arte: Corcuera, Musakola.

Asteazkena 6

Eguez eta gauzez : Mozos, Bergara.
10ak arte: Amezua, Santamaina.

Osteguna 7

Eguez eta gauzez : Estella, Bergara.
10ak arte: Ruiz, Maala.

1 OSTIRALA

- **ZINEA**
"Tres formas de Amar" 7etan eta 10etan.
- **ELORRIKO GAZTETXEAN KONTZERTUA**
"Los Porretas" taldearen kontzertua gaueko 11etan Elorriko Gaztetzearan.

2 LARUNBATA

- **ZINEA**
"Un Indio en Paris" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ABIADURA HANDIKO TRENAREN AURKAKO FESTA ALEGIAN**
Ordubatean kalejira eta poteoa. 2etan agurra, txalaparta eta bazkaria plazan. 5.30etan antzerkia, bertso-lariak, txalapartariak eta margolariak plazan. 9etan Zagiardoa gaztetzearan parean. 11.30etan "Tumbadito", "Etzakit" eta "Deabruak teilatueta" taldeen kontzertua gaztetzearan. Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbladak antolatuta.

- **IRLANDAKO BAKE PROZESUAREN ALDE MANIFESTAZIOA DONOSTIAN**
Elkarrik antolatuta Irlandako bake prozesuaren alde manifestazioa Donostian arratsaldeko 6.30etan.

3 IGANDEA

- **ZINEA**
"Un Indio en Paris" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ZIKLOTURISTA IRTEERA**
Ibilbidea: Arrasate, Maltzaga, Eibar, Areitio gaina, Berriz, Elorrio eta Arrasate, guztira 55 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterrondik.
- **MARIXEKAKO JAIK**
Goizeko 10.30etan futbol partiduak Aramaio eta Arrasate-ren artean. 12etan Meza. 12.45etan Euskal dantzak. 3etan bazkaria. 4etan herri kirolak Gorriti taldearen eskutik eta 6etan Txinparta taldearekin erromeria.



IRAILEKO UDALEKUAK

Txatxilipurdik antolatuta iraileko udalekuak hasiko dira. Bi txanda egongo dira: Irailaren 4tik 15era eta 4tik 22ra. Udalekuak 3urtetik 14 urte bitarteko neska-mutilentzat antolatu dituzte. Ordutegia arratsaldeko 3etatik 6etara.

UR ETA ZABOR TASAK

Bigarren hiruhilabeteko ur eta zabor tasaren ordainagiriak irailaren 15ra arte borondatezko epean ordain daitezke udaltzearan. Epea pasatzen denean %20ko gaitzarekin ordainduko dira.

4 ASTELEHENA


- ZINEA
"Un indio en Paris" 7etan eta 9.30etan.

5 ASTEARTEA

- ZINEA
"Un Indio en Paris" 7etan eta 9.30etan.

8 OSTEguna

- GATZAKO JAIK
Arratsaldeko 5etan Herri Irratiko Irratsaioa. 7etan Dorletako Ama Birjinaren ohorezko Bederatziurrenaren amaiera Eskoriatzako Eliza-Koroarekin. 7etan txistu soinuak alaturik afari-merienda gazta, ogia eta ardoarekin.



GATZAKO JAIK

Ostirala 9. Goizeko 11etan kanpainen errepikapena. 11.30etan trikitixa "Jauregi" anaiekin. 11.30etan Otxandixotarrei ongietorria. 12etan Meza Santua. 12.30etan txistorra eta ardoa. Ordubatean herri poteoa. 2.30etan jubilatuen bazkari omenaldia. 5etan umeentzat jolasak. Gaueko 12etan "Joselu" anaiekin dantzaldia eta 4etan berakatz-zopa.

Zapatua 10. Goizeko 11etan "Txalaparta" txarangarekin kalejira. 12etan Leintz Gatzagako artisautzaren erakusketa eta salmenta. Arratsaldeko 2.30etan herri bazkaria. 3.30etan lehen eta bigarren mailako afizionatuentzat txirrindulari lasterketa. 5etan Briska txapelketa. 6.30etan txirrindulari lasterketako sari banaketa. 7etan fandango eta arin-arin txapelketa. 11etan bolo txapelketa. 12etan "Lisker" taldearekin dantzaldia eta goizaldeko 5etan txokolatada.

**95·96
IKASTURTEA**

- Oinarizko Ofimatika
Windows 95 Ingurua **BERRIA**
- Diseinua - CAD
- Komunikazio eta Sare Lokalak
- Programazio Informatika
- Kontabilitate eta Komertzial Gestio mekanizatua
- Zerga Gestioa PYMES-etan
- Giza Errekurtsoen Administrazioa
- Kanpo Komertzioa
- Mekanografia ordenagailuz
- Laguntasun Klaseak
- Merkatal Korrespondentzia Euskaraz
- Euskara
- Postari Oposaketak
- Elikagai Manipulazaila
- Hardware Teknikaria
- Gestio Informatika Teknikaria
- Administrazio Teknikaria
- Administrazio Laguntzailea
- Klinika Laguntzailea
- Dietetika eta Nutrizio Teknikaria
- Haurtzaindegi Teknikaria
- Haurtzaindegi Laguntzailea

**MATRIKULA
ZABALIK**

AKADEMIA

BASTIDA

CENTRO HOMOLOGADO POR EL INEM

Araba Etorb. 3 - 1.a
Arrasate
Tel.: 79 32 16
Fax: 79 06 28

1.400 milioi Eskoria-tzara

Abuztuaren hamabiko loteria nazionalak 1.400 milioi pezeta utzi zituen Eskoriatzan. Saria herriko "Eguren" arrandegiak eman zuen eta oso banatua izan zen, urtean zehar Eskoriatzako hainbat familik bertan erosten du loteria eta. Gehienei zortzi edo lau milioi tokatu zaie baina zurrumurruak diotenez, izan da 500 milioi jaso duenik ere.

Auzolandegiak bukatu

Abuztuaren erdialdean bukaera eman zitzaien Udalan egin diren auzolandegiei. Uste baino lan handiagoa zegoela eta, bi karobi berreskuratzeko denbora izan dute auzolandegietan parte hartu duten gazteek. Hasieran lau karobi eta elurzulo bat berreskuratzea pentsatzen zen. Gainontzean auzolandegiak ondo joan dira eta partehartzaileek ere balorazio ona egin dute.

Ezbeharrak

Uztailaren 29an Izaskun Murgia arrasatearra hil zen Landako urtegi. 46 urteko emakume hau uretara sartu zenean zendu zen baina ez dago argi zerk eraginda. Murgia Arrasate Musikaleko irakaslea zen.

Rafael C.V. arrasatearra hil zen abuztuaren 20an, Asturiaseko El Entrego



Hirukoak Batzorde Informatiboak onartu

EAJ, PSE-EE eta EA eta PPren zinegotzien abstentzioarekin eta HB eta EBren aldeko botoekin uztailaren 24an Batzorde Informatiboak onartu ziren. Emakumearen batzordea, berria dena, eta Auzoetakoa I. Zuzubiskarrek zuzenduko ditu; Pertsonal eta Haziendarena Ino Galparsorok; Hirigintza eta Zerbitzuena J.J. Saenzek; Euskara, Kultura eta Kirolak J.L. Arexolaleibak eta Hezkuntza eta Gazteria Y. Perez de Arenazak. Ezker Batua Gizarte Ekintzetarako Batzordeaz arduratuko da. Hirukoak ez zuen argitu zentzura mozioa aurkeztuko duen edo ez. Hori erabakitzeko irailaren erdi aldean bilera egingo du hirukoak.

herrian gertatutako auto-istripan. Berarekin zihozten beste lau lagunek (emazteak, alabak eta bi gaztek) zauriak izan zituzten.

Uztailaren 23an Arnaldo Patterson hil zen, herrian hainbat saltsa ikastaro emandako dantzari ezaguna. Pattersoni bihotzeko ebakuntza egin zioten, baina ez zen ebakuntzatik onik atera.

Sutea Epelen

Sutea izan zen Epeleko zabortegian abuztuaren 16an. Hondakinek su hartu

zutenez, Zubillagako suhiltzaileek nahiko lan izan zuten sua kontrolatu eta itzaltzen. Sutea nola piztu zen argitu barik dago, baina baliteke norbaitek nahita egindakoa izatea.

Lapurreta Cerrajeran

Uztailaren bukaeran lapurreta izan zen Cerrajera lantegian. Lapurrak leihotik sartu ziren eta bulego batean zegoen materialea eraman zuten; bi irrati, kalkulagailuak eta diskette batzuk.

Eramandakoak 30.000 pezetako balioa zuen.

JAIOTZAK

- Jone Rico Agirre. Uztailaren 11n.
- Yeraiz Gisado Sanchez. 14an.
- Aitor Lizaraburu Alonso. 18an.
- Paula San Miguel Galalleña. 19an.
- Eider Ibarrondo Mondragon. 21ean.
- Usue Garro Ayucar. 28an.
- Amaia Diez Vinuesa. 31n.
- Iratxe Moreno Cugnon. Abuztuaren 1ean.
- Yanire Gutierrez Gonzalez. 7an.

EZKONTZAK

- Luis Miguel Barbero Lopez eta Francisca Chaves Melgar. Uztailaren 15ean. Elizaz.
- Juan Valor Cuadrado eta Maria Asuncion Hernando Rodriguez. 15ean. Elizaz.
- Jose Luis Lopez Alvarez eta Maria Carmen Rubio Mateos. 15ean. Elizaz.
- Juan Jose Uribesalgo Leturiaga eta Maria Esther Sanchez Etxebarria. 15ean. Zibilez.

HILDAKOAK

- Eloisa Fernandez Fernandez. Uztailaren 17an. 79 urte.
- Jose Iturbe Jausoro. 17an. 84 urte.
- Elias Ezkurra Oyarzabal. 23an. 73 urte.
- Rafael Etxarri Orbegozo. 21ean. 62 urte.
- Victorio Castaño Gutierrez. 21ean. 83 urte.
- Amparo Bañeza Seco. 25ean. 84 urte.
- Romualdo Uribetxebarria Barandiaran. 26an. 90 urte.
- Carmen Larrañaga Orue. 27an. 85 urte.
- Maria Pilar Aritaleaniz Ziar-solo. Abuztuaren 3an. 67 urte.
- Martin Heriz Arizmendi. 3an. 85 urte.
- Juan Salaberri Urzelai. 5ean. 82 urte.

Etxe-Bundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

2. PLATERA

Haragia edo arraina

POSTREA

Etseko gozotzeria

ARDOA

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Termiten aurkako tratamendua Monterronen

Termiten egurra jaten zutela eta, intsektu horien aurkako tratamendua egin dute abuztuan Monterrongo liburutegian. Abuztuko lehen astean liburutegia zabalik izan zen baina urtero moduan gero itxi egin zuten eta tarte horretan tratamendua egin zuten. Aste honetan berriz ere atek ireki ditu udal liburutegiak.

Itxura denez termitak Monterrongo parketik sartzen dira eta hori eragozteko, kanpoko fatxadetan ere tratamendua ezarri dute.

Oporren bukaera

Abuztuko oporraldia bukatu dela eta, herria beteaz joan da aste honetan zehar. Astelehenean zenbait lagun hasi zen lanean, kooperatibetako eta Udaltxeko langile batzuk barne, baina gehienak datorren astelehenean hasiko dira.

Die Testers taldeak gaztetxea bete

Asteazken gauean



Uribarriko jaiak

Astebukaeran Bartolome deunaren jaiak burutu ziren Uribarrin. Jaiak ostegunean hasi eta zapatuan bukatu ziren. Ostegunean bertso jaialdia izan zen eta pilota partidua ere jokatu ziren. Ostiralean, berriz, mus txapelketa. Zapatua egun handia zenez, herri bazkarian bildu ziren auzoko 67 lagun eta zozketa ere egin zen. Hona hemen zenbaki sarituak: lehen saria, bildotsa, 1.436 zenbakiarentzat; bigarren saria, urdaiazpikoa, 891 zenbakiarentzat eta hirugarrena, sari sorpresa, 40 zenbakia duenarentzat. Lehen saria Untzillako bizilagun batek jaso du baina beste biak oraindik ez dira azaldu.

kontzertua eskaini zuen "Die Testers" talde berlingarrak Arrasateko gaztetxean. Gaztetxea erabat bete zen, punk-rock-ska estiloko musika entzun nahi zutenekin. Taldea hamaika lagunek osatzen dute eta giro ona jarri zuten herriko gaztetxean. Jarraian, Euskal-Herriko beste toki

batzuetan joko du "Die Testers" taldeak.

Aloñak Villa de Mondragon txapelketa irabazi

Aloña Mendi futbol taldeak Villa de Mondragon txapelketa irabazi du, azken partiduan Mondra taldeari

2-3 irabazi ondoren. Urtero jokatzeko txapelketa honetan UDak, Aloñak eta Mondrak hartu dute parte, Eskoriatzako taldea desegin egin da eta. Lehenengo partidua zapatuan jokatu zen Aloña eta UDA taldeen artean, eta berdinketaz bukatu zen partidua. Emaizta bera izan zen domekan Mondra eta UDA taldeen artean.

Gauzak horrela, Mondra taldeak azken partidua irabazi egin behar zuen, bestela txapelketa Aloñak edo UDak eskuratuko zuten eta. Aloña eta Mondraren arteko partidua asteazkenean, arratsaldeko 6.30etan, jokatu zen Atxabalpe futbol zelaietan. Lehen zatian herriko taldeak gaizki jokatu zuen eta Oñatiko taldeak hiru gol sartu zituen. Mondrako Zulueta jokalaria kanporatu zuten bigarren zatian hamar mutilez zelairatu zen Mondra, baina hobeto jokatu eta bi gol sartzea lortu zuen. Bi golak Oxel Apraiz gazteak sartu zituen. Txapelketako bigarren postua UDak lortu du eta azkena Mondrak.




Arrasateko Udala

LAN ESKAINTZA

Euskarazko IRAKASLEAK kontratatu nahi dira Udal Euskaltegian aldi batez aritzeko.

Hautesprozesuen Oinarriak Udaletxean jaso daitezke. Instantziak aurkezteko epea **irailaren 8an** amaituko da.



* Txomin Nuñez

Lanerako itzulera

Egia esan ez zait batere erraza egiten hain lerro gutxitan hainbeste konnotazio sozial, pertsonal eta kulturalak dituen gai bati buruz idaztea; oporren itzulerari buruz ari naiz. Dena dela saiatuko naiz alde desberdinetatik ikus daitekeen gai honi buruz neure iritzia ematen.

Lanerako itzulera oporren ondoren bildu eta berriketan hasten diren hiru lagunen adibidea erabiliz ikus genezake. Lehena kemen barik dago, gauzekiko interesik erakutsi barik, lotarako arazoak dituela... oporren ondorengo sindromeaz ezagutuko genuke. Normalean honelako pertsonak beraien lanean, gizartean, familian edoeta ezkontzan egoera desatseginen bat bizi dute. Bigarrenak, egun batzuk

behar ditu aldaketara ohitze-ko, baina arazo handi barik lortzen du. Eta hirugarrena lanean hasteko desiratzen dagoena da: elkarbizitzak bere bikotearekin, seme-alabekin, denbora zertan eman ez jakiteak eta abarrek haserre txikiak eta egoera desatseginak sortzen dizkiote,

.....

“Utz ditzagun historiak alde batera eta bizi gaitezen egunez egun, opor famatuena zai egon barik”

eguneroko lanaren errutinak konpontzen dizkionak alegia.

Hiru adibide horietan ikusten dugu “lan-bizitzara” egokitze gaitasuna bakoitzak gure bizitzarako dugun asmoen arabera dagoela. Utz ditzagun “historiak” alde batera eta bizi gaitezen egunez egun, “opor famatuena” zai egon barik. Kontrola dezagun eguneroko geure lana, eta gauden egoeran gaudela saia gaitezen ahalik eta ondoen egoten. Eta eguneroko lana ezin badugu kontrolatu, senar/emazteari begira dezaiozun, lagun minari, seme-alabei, lagunei eta egunean bizi gaitezen, ez oporrei begira edo haien arabera, baizik eta geuri begira, pentsatzen dugunaren arabera.

* PSIKOLOGOA

USTEAK USTE

BERRIRO LANEAN

Berriro lanean. Ez daukak ba zorte makala! esango du batek baino gehiagok, arrazoi osoz gainera. Hala ere, ezingo dut ukatu hilabete inguru kolpe-rik eman gabe pasa ondoren, latza egin zaidala lanerako buelta. Portura iritsi ezinka dabilen itsasontziaren moduan sentitu naiz pare bat egunez. Lekutan geratu zaizkit udako berandu jaikitzeak, eguneroko praka motz uniformeak, tabernako gosaria eta mendiko ogitartekoa, arratsaldeko bainotxoa eta ondorengo afaria.

Erdi ahaztuta neuzkan tresnak aurrez aurre izan ditut bapatean: iratzargailua, autoa bera, boligrafoa, ordenagailua, telefonoa...Eta aitortu behar dut oraindik erdi-arrotz sentitzen ditudala, norbaitek, gusto txarreko broma bat eginez, begien aurrean jarri dizkidala. Zer egingo diogu ba, gauzak diren modukoak dira eta ez bestelakoak. Aurrera begiratu eta, San Ferminetan letxe, datorren urteko oporretarako gutxiago geratzen dela pentsatu behar. Izan ere, lanurtea aurtengo oporrak bezain azkar pasatzen bada, laister ditugu hemen datorren urtekoak.

• BEÑARDO KORTABARRIA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



Urkuluko inguruak bisitatzen dituzte bailarara etortzen diren turista askok.

Nekazalturismoak erakartzen ditu turista gehien bailaran

Udako oporraldia heltzean Arrasate eta inguruko herriak hutsik geratu ohi dira, gure bailarak ez du turistik erakartzeko ohiturarik eta. Azkenaldian eta batez ere nekazalturismoaren agerpenarekin, badirudi oporraldia bailaran pasatzeko joera gorantz doala.

Aretxabaletako Mitarte Garai, adibidez, beteta egon da abuztuan. Batez ere kataluniarrak eta madrildarrak etorri dira Urkulu ondoan dagoen baserri honetara baina izan da atzeritarrak ere. Mitarte Garaikoen berbetan, bailara eta kostaldea bisitatzen dituzte hona etortzen direnek eta ikusitakoaz oso

pozik joaten dira. Horregatik, gehienak berriz itzultzen ei dira edo bestela lagunei gomendatzen diete.

Aramaion nekazalturismo zerbitzua jarri berri duen Unzueta baserrira ere etorri da turistik, batez ere kataluniarrak. Baina ireki berria dela eta, gela guztiak ez dira bete.

Udan turismoa industrialak gutxitu egiten denez, Arrasate Hotelean mugimendu gutxi izan da abuztuan. Langile batzuk etorri dira eta, baita Donostiako hoteletan tokirik aurkitu ez dutenak ere. Horrez gain, aurrez egondako batzuk ere hurbildu dira Arrasate egun batzuk pasatzera.

Euskarazko irakasleen lan-poltsak sortzeko deialdia

Euskarazko irakasle esperientziadunen eta praktiketarako irakasleen lan-poltsa sortzeko deialdia egin du Arrasateko Udalak. Deialdiaren helburua, Udal Euskaltegiko premien araberrako kontratuak egitea da.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezkoa izango da magisteritza agiriaren, unibertsitateko lizentziaturaren edo diplomaturaren jabe izatea, EGA agiria edukitzea eta INEMen izena emanda egotea enplegu eskatzaile gisa. Irakasle esperientziadunen kasuan, gainera, gutxienez urtebeteko esperientzia izatea beharrezkoa da. Eskaerak Udaletxeko erregistro nagusian aurkeztu beharko dira aste honetan zehar eta epea bukatzen denetik hiru egunetara, onartu eta baztertutako en zerrenda jarriko da Udaletxeko iragarki-taulan. Zerrenda horretan daudenek hiru eguneko epea izango dute baztertzearen aurka erreklamatzeko eta baztertze horrek ekarritako akatsak zuzentzeko.



URONDO

elektrizitatea

* Elektragaiak

* Instalazioak

* Automatismok

* Proiektuak

* Argiztapena

* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa


Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Irailaren erdialdean eratuko da Deba Garaiko Mankomunitatea

Deba Garaiko udal bakoitzak aukeratu ditu dagoeneko Mankomunitatean izango dituen ordezkariak eta orain Mankomunitatearen Eraketa Batzarra egitea falta da. Erakunde horretarako izendatu diren hamasei ordezkariak seguruenik hila-ren 13an bilduko dira lehendakaria, lehendakariordea eta diruzaina aukeratzeko. Era berean, datozen urteetarako asmoak zeintzuk izango diren jakinaraziko da.

Biztanleriaren arabera Arrasateri lau ordezkari edukitzea dagokionez, uztailearen bukaeran egin zen plenoan HB, EAJ, PSE-EE eta EAK ordezkari bana izatea onartu zen. Oñati eta Bergarak, berriz, hiruna ordezkari izan-



Laster Akei itxiko denez, zaborren arazoari irtenbidea aurkitu beharko dio hemendik gutxira osatuko den Mankomunitate berriak.

go dituzte, Aretxabaletak bi eta Antzuolak, Eskoriatzak, Elgetak eta Gatzagak bana. Alderdika EAJk zortzi ordezkari izango ditu Mankomunitatean, EAK hiru, PSE-EEK

bi, HBk bi eta independente bat ere izango da.

Eraketa bileran izendatu beharreko karguak zein prozeduraren bidez aukeratu diren ez da ezagutzen orain-

dik. Aurreko legealdiko prozedurak eztabaida sortu zuen ordezkari bakoitzaren botoaz hiru karguak EAJren esku geratu ziren eta. Mankomunitatearen funtzionamendua Udalen antzerkoa da. Guztira sei batzorde daude eta udalerrri bakoitzak ordezkari bana du. Batzorde horiek bakarrik diktamenak egiteko ahalmena dute eta erabakiak Juntak hartzen ditu. Batzorde garrantzitsuenak garapenerako agentziarena eta ingurugiroarena dira. Langaberiari aurre egiteko helburuaz, aurrekontuen erdia jaso zuen iaz garapenerako agentziak.

Legealdi berria Mankomunitatearen laugarrena izango da, 77an hasi zen lanean eta.


ERANA aholkularitza

Gure bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko, orain egoitza berria zabaldu dugu.

Jokin Zaitegi, 6
(Roneoko etxeak)
Tfnoa: 79 83 95
Faxa: 79 79 07
ARRASATE



Oporretan non?



Lanera bueltatzeko onena berehala oporrak ahaztea dela esaten dute adituek. Hala ere, herri- itzultzerakoan jende dexente ikusten da argazki dendatan, opo-

rrak berriro gogora ekartzen lagunduko dien argazkiak errebelatu nahiean. Guk ere, ia urtero bezala, gauza bera egin nahi izan dugu eta horretarako hainbat arra-

satearren oporraldiaren berri dakarkizuegu orrialde hauetara. Erakusketatik txiki bat besterik ez da, baina argi dago munduari bira egiteko adina mugitu zaretela.



Batzuek ingelesa ikasteko aprobetxatzen dute oporraldia eta argazkiko lagun hauek horixe egin zuten. Uztaila osoan, Ingalaterrako Worcester hirian egon ziren **Itziar Zabala, Iñaki Uriarte, Xabier Arrupe, Alaitz Perez de Arenaza, Gregorio Gallego, Amaia Urzain, Leire Zenigaonandia, Nagore Llodio** eta **Aitor** arrasatearrak. **Ane Miren** aramaiorra eta **Aitzol** atxabaltarra ere ageri dira argazkian.



Esther, Maite, Jasone, Matilde eta **Rakelek** Europatik bidaia egin dute abuztu honetan. Bestek beste, Viena, Praga, Italia... bisitatu dituzte eta primeran

pasa dutela jakin izan dugu. Argazkia Pragako Carlos zubian aterata dago eta Arrasateko bost neskek beste bidaikide batzurekin agertzen dira.

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan
Ez galdu aukera!


Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06





Kalitate gorena leihoetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Lituanian ateratako argazki hau ekarri digu **Salvador Dalmau** arrasatearrak. Uztailean, dantzatzera etorri ziren talde bateko partaideak ezagutu zituen Galdakaon eta abuztuan eurak bisitatzera joan zen. Arrasatearra ez da argazkian ageri baina bere lagun lituanianarrak aldizkarian azal daitezzen nahi izan du.



Iban Lopez de Munain eta **Pili Negrok** Portugal aldea aukeratu dute aurtengo oporrak igarotzeko. 15 egunetan hainbat paraje polit ikusteko aukera izan dute. Iparraldetik hegoalderaino joan dira. Argazkian Iban Oportoko kale batean dago eta Pili Luso herrian lorez inguratutik.



Hona hemen bizikletazale amorratu batzuk: **Asier Villar** eta **Gaizka Eraña**. Uztailaren 16tik 28ra bitartean Holanda egin zuten bidaia eta ederto pasatu zuten. Argazkian, bi bizikletazaleak Holandako Utrecht hirian.



Elena Oñate, Paco Barquero, Susana Boisa, Marta Bouzas, Anabel Castillojo, Susana Benitez, Mikel Otxandiano, Fran Martinez eta **Aitor Agirre** arrasatearrak Salou aldera egin zuten oporretako bidaia eta nola ez, han egonda, ezin izan zioten "Port Aventura" bisitatzeko tentaldiari eutsi. Argazkian, Fran Martinez arrasatearra parkeko barraka ikusgarrienean: "Mendi Errusiarrean". Dударik gabe, kemena behar da horrelako barraka batera igotzen ausartzeko, eta gehiago egoera horretan argazkia ateratzeko.

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82



- Ordenagailu eta softwarea
- Ploteatze eta eskaneatze zerbitzu berria
- Eta orain **INFORMATIKA IKASTAROAK**

INFORMATICA ALTO DEBA

Uribarri Etorbidea, 22 • Tfnoa: 79 64 74 ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE



Azken sei urteetan bezala **Unai Bergaretxek** udako oporraldia Urdirozeko udalokuan igaro du. Udalekuan Unai mantenimenduaz arduratu da, eta bi txandetan ber-

tan egon diren 152 haurren beharrei erantzun behar izan die. Gehienbat Nafarroako iparraldeko inguru atseginak eta eguraldi apartak erakartzen ei du Unai.



Gehienok kanpora aldetzen dugun bezala, bada abuztuko oporraldirako Arrasate aukeratzen duenik ere. **Jose Fuentes** villalbarrak aurtengoarekin 6. urtea darama

abuztuan hona etortzen. Bertako lagunekin ibili, hondartzara eta mendira joan... eta gustora ibiltzen ei da hemen. Argazkian bere zaku-rrarekin duzue, **Allisón**ekin.



Josu Belar, Alex Iturbe, Juani Errasti, Jon Petreñas eta **Mikel Lizarralde** dituzue argazkiko bost txirrindulariak. Autoz zihoan Baronaren laguntza zutela hamazortzi etapatan Gerona-tik Gipuzkoara arteko ibilbi-

de luzea egin dute mendiz mendi txirrindu gainean. Oso eguraldi ona izan ei dute, beharbada beroegia hasieran, eta Pirineo osoa zeharkatu ondoren politena Euskal Herria iruditu zaiela aitortu digute.



Creta aldean ibili da **Blanka Jauregi** aurtengo udan. Ingu-ru hartako eguraldi bikaina aprobeztatuz irlako edertasunaz gozatu ahal izan zuen. Horrelako toki batera joanez gero, ezinbestekoa da grekoen garaiko aztarnak ikustea. Hor duzue argazkian Teresa Perez madrildarrarekin batera, Knossos-en, Minotauroaren laberintoaren inguruan.

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta bankefak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABAETA

**JOSE RAMON GALARZA
Doktorea**

Espezialitatea:
Kirurgia ortopedikoa eta traumatologia

KONTSULTA BERRIA

“Centro Médico Udalaiz”en, Ferrerías, 56
Tfnoa: 79 44 22 / 79 44 56 ARRASATE

**OLIVEROS DOKTOREA
PSIKIATRA**

Irailetik aurrera kontsulta beste
toki batera pasatuko da.

Helbide berria:

CONSULTORIO MEDICO OLARTE
Olarre kalea, 43 behea
Tfnoak: 79 81 00 / 79 81 11
Arrasate

Itxaro Zubillaga

Iñigo Txintxurreta, Jose Ramon Etxeberria eta Iñaki Unamuno Txirta taldeko partaideek abuztuko oporraldiaren ondoren berriro antzerki lanari tinko eusteko asmoa dute. Antzerkilaritza hobby-a izatetik lanbide izatera heltzea gustatuko litzaieke, baina hori lortzeko nahia baino zerbait gehiago behar dela badakite: ordu asko, pazientzia eta gogo handia antzezlan bera behin eta berriro errepikatzea ahalik eta emaitza ona lortzeko. Hori guztia emateko gertu azaldu dira Txirta taldeko hiru artistak.

Txikitatik egon dira antzerkiaz liruratuta eta lehen aukera izatean ez dute erreparorik izan eszenatokira igo eta jendearen barre algarak sortarazten saiatzeko.

Taldea sortzeko ideia Iñigok izan zuen eta bere taldekideengana jo zuenean bat etorri ziren bi bider pentsatu barik. Taldea sortuta izen egokia bilatu behar eta lan honek nahi baino buruhauste gehiago eman zien. Azkenean hiru zirela eta horrekin lotuta zerbait bilatu behar zenez hiztegiara jo zuten Iñakik dioenez: "Txirta izena aurkitu nuen. Esanahia hirus-ta edo gazteleraz treboi. Izen motza eta ikasteko samurra zelako gustatu zitzaidan, baita nire taldekideei ere. Beraz aurretik pentsatuta genuen izen guztiak ahaztu eta Txirtarekin geratu ginen". Txirtako hiru partaideek diote odolean daramatela antzerkizaletasuna eta antzerkilaria izateko zein ezaugarri behar den galdetzerakoan erantzun bakarra egon da

Txirta

antzerki taldea

"sudur handia" (beraienak kontuan hartuta).


Sudurhandiaz gain, afizioa eta lan egiteko gogoia dira ezaugarri garrantzitsuenak. Izan ere, hasierako lotsak eta urduritasunak eszenatokira igotzerakoan alde egiten ei dute,

"hasieran lotsatuta baino urduri egoten gara, baina behin lanean hasita ohartu barik lasaitasuna etortzen da. Antzeztetakoan gerta daitekeen gauzarik okerrera esan beharrekoa ahaztea da eta askotan horrek ematen digu beldurra. Horre-

lakorik gertatuz gero, inprobisatzeko azkartasuna izan behar dugu, hor dago aktore baten funtsa eta hori denborarekin hobetu egiten da. Antzerkilaritzan, bizitzako beste alorretan bezala esperientzia nahi eta nahiezkoa da".




J. R., Iñaki eta Iñigo Txirta taldeko partaideek antzerkiaz bizi nahi dute.



Iñigo Txintxurreta

- Noiztik antzerki zaletasuna?
 - Txikitatik gustatu izan zait antzerkia eta eskolan antzerkia egiten genuenean beti prest nengoan. San Viatorren hainbat antzerkitan hartu nuen parte eta *Tunantes del Norte* taldean ere ibili nintzen.


- Zein da zure idoloa?
 - Charly Chaplin guztien maisua izan da.



Iñaki Unamuno

- Noiztik antzerkizaletasuna?
 - Lehen aldiz eszenatoki batera ikastolan igo nintzen. Beraz, pertsonaia desberdinak antzezteko grina niri ere txikitatik datorkit. Gero, *Hemen* antzerki taldeko partaide izan nintzen eta orain *Txirta* taldearekin ahal dudan urrutien heltzea gustatuko litzaidake.

- Zein da zure idoloa?
 - Charly Chaplin eta bestela Kataluniako antzerkilariak.



J. R. Etxeberria

- Noiztik antzerkizaletasuna?
 - Antzerkizaletasuna jaiotzetik odolean eramaten den zerbait berezia da. Eszenatoki batera igo eta keinu eta hitzen bidez gauzak adierazteko gogoia betidanik izan dut baina SUDCek antolatatu zuen lehen Play Back-an egin nuen nire estreinaldia.

- Zein da zure idoloa?
 - Charly Chaplin, Benny Hill eta Mister Been.

IKASTARO BEREZIRIK EZ

Txirtako partaideek ez dute arte dramatikoa ikasketarik egin, baina hainbat ikastarotan hartu dute parte eta euren kaxa landu dute antzerkilaritza. "Antzerkilari famatuaren bideoak ikusi ditugu keinuak eta espresibitate lantzeko eta ekinaren ekinez lortu dugu gure estiloa berezia izatea". Euren argi dute estilo propioa dutela, horregatik ez dute onartzen *Triciclen* kopia direla esatea "Ez gara *Triciclen* kopia. Antzerki talde guztiak kopiatzen ditugu. Clown-en maisua Charly Chaplin izan zen eta ondoren etorri direnek, *Benny Hill*, *Mister Been*, *Tricycle*... maisuari kopiatu diote eta euren ezaguerriak eta berezitasunak sartu dituzte, guk bezala. Pertsona bakoitza desberdina da eta

bakoitzak bere espresibitatea ematen dio egiten duen keinu edo mugimenduari; bakoitzak bere estiloa du nahiz eta gauza batzuk antzerakoak iruditu". *Txirtako* antzezteko orduan batzutan hitzez baliatzen dira, baina hitz gabekoak ere egiten dituzte. Gaur arte egin duten lanak euskal kirolarekin zerikusia izan duten arren, hemendik aurrera era guztietako gaiak jorratu nahi dituzte Sketch-a landuz "hitzaren bidezko antzerkiak ulerterrazagoak dira, hitzak asko laguntzen du baina hitz gabekoetan espresibitatean bilatu behar da esanahia, jendeak keinu eta onomatopeien bidez ulertu behar du antzeztan zentzua, beraz gogorragoa egiten da"

J.R, Iñigo eta Iñakirentzat antzeztana bukatzean saririk

onena txalo hotsa da. "Jendeak ondo pasa dezala nahi dugu, barre egin dezala eta benetan lana gustatu bazaio txaloen bidez adierazten du, hori da saririk onena"

GOI MAILAKO HELBURUAK

Txirtako emanaldi dexente izan dute urte honetan eta irailtik aurrera antzerkilaritzari gogoz eusteko asmoa dute. Izan ere, hiruren helburua epe motzean antzerkitik bizi izatea da. Jakina, helburua betetzeko askoz ere lan gehiago egin behar dute eta egoera hobeto gainera. "Une honetan garaje antzerkia egiten ari gara. Hau da, ez dugu entsaiatzeko lekurik eta Iñakiren garajeantzerkiak gara. Orain arte ez dugu laguntza publikorik jaso, lagundu

digutenak partikularrak izan dira. Hala ere, esan behar da ez garela asko mugitu ez dirua lortzeko eta ezta emanaldiak bilatzeko ere. Hemendik aurrera arlo horiek gehiago landuko ditugu, Euskal Herrian eza gutzera eman behar dugu taldea hemendik kanpo irten ahal izateko".

JENDEAREN HARRERAKIN POZIK

Arrasateko publikoa oso exigentea dela uste dute "jendeak antzeztana gustatu bazaio esan egiten digu eta berdina ez bazaio gustatu. Oso kritikoa da. Dena dela ezin gara kexatu herrian izan dugun harrekin eta jaso dugun laguntzekin. Horregatik herriari eskerrak eman beharrean gaudela eta baita guri laguntzen ibiltzen den jendeari ere".


Jessi Harris Urbina Maltzagako azken fitxaketa

Jessi Harris amerikarrak Urbina Maltzaga taldean jokatu du 95-96 denboraldian. Ohioko pibot gazte honek 26 urte ditu eta 2,04 metroko altuera. Estatu Batuetako Toledo-Ohio-ko Unibertsitatean egin zituen ikasketak eta bertako saskibaloitza taldean lan bikaina egiteko aukera izan zuen; ondorioz, NBAko Indiana Pacers taldearen ikusmiran egon zen. Jessi Harris, dena dela, ezaguna da Estatu saskibaloian. 93-94 denboraldian Zamorako Vino de Toro taldean jokatu zuen eta partidu bakoitzeko, bataz beste 18 puntu, 11 errebote eta bi tapoi lortu zituen. Hurrengo urtean El Ejidoko Almerimar taldean aritu zen.

Jessi jokalaria handia izan arren, atzean fin ibiltzen da eta saskiratzeko orduan trebe. Horrez gain, oso egoera fisiko onean dago eta duen altuerarako jokalaria azkarra dela esan daiteke.

Taldea osatuta

Fitxaketa honekin Urbina Maltzagako osatu du, dagoeneko, aurtengo denboraldirako taldea. 13 jokalaria dauka Jose Angel Samaniegok gidatuko duen taldean. Base postuan Alvaro Coca eta Juan Pedro Cazorla arituko dira. Hegalean, Jorge Fernandez, Ander Gutierrez, Iñaki Gomez, Pedro Rodriguez eta Juan Jose Sanpedro. Pibotak Joserra Garai, Iñaki Arrue, Jorge Garbajosa eta Jessi Harris izango dira. Aipatutakoek gain, Iagoba Gamarra eta Ander Mallabiabarrena gazteek ere EBA ligan jokatzeko



Jessi Harris Estatu Batuarra gure artean izango da aurtengo denboraldian

ko aukera izango dute.

Urbina Maltzaga taldeko jokalaria abuztuaren lehen hasi ziren aurrendenboraldia prestatzen. Zapatu honetan aurrendenboraldiko lehen partidua jokatu dute eta irailaren 9an beste bi Bilbao Patronato eta Askatuak taldeen kontra Laudion. Irailaren 10ean berriz, aurkezpen ofiziala egingo dute Iturripen eta Taugres Basconia taldearen aurka indarrak neurtuz arratsaldeko 6etan. 16an Burgosko Espolon taldea izango dute arerio Eskoriatzako kiroldegian eta 17an aurrendenboraldiko azken partidua

jokatu dute Frantziako talde baten aurka.

Denboraldiko lehen neurketa irailaren 23an jokatu dute EBA ligako taldeek. Arrasateko taldearen aurkaria Askatuak izango da.

Bestalde, Urbina Maltzagako bi jokalarik Basconiak Palentzian jokatu duen nazioarteko txapelketan hartu dute parte. Gasteizko taldean hiru lesionatu garrantzitsu zeuden Rivas, Nicola eta O'Sullivan eta hauen hutsunea betetzeko Basconiak Arrasate saskibaloitza taldeko Jessi Harris eta Jorge Garbajosa erabili ditu.

Arrasateko futbito taldea desagertu egin da

Diru arazoak medio Arrasate futbito taldea desagertu egin da. Lehen mailan jarraitzeko babeslerik aurkitu ez dutenez Arrasateko futbito taldea bertan behera utzi behar izan dute eta euren plaza Eskoriatza taldeak erosi du. Eskoriatza beraz futbolaren lekukoa futbito hartuko du. Eskoriatza futbito taldeak preferente mailan jokatzeko baina 94-95 denboraldian ezin izan zion mailari eutsi eta jokalaria guztiak kanpotarrak zirela eta herrian harrobirik ez zegoela ikusita, arduradunek taldea desegiteko erabakia hartu zuten. Aurten berriz, futbitoaren alde egin dute apostua Eskoriatzarrek.

Eskoriatza futbito talde berria iaz Arrasaten jokatu zuen zenbait jokalaria arituko da. Besteak beste Zubia atezaina, Zigor Dieguez, Dabid Zaitegi, Aitor Balzategi, Ricardo, Entxo, Jon Onandia, Santi Boisa, Nando eta beharbada Karrantxa. Hala ere, jokalaria honek oraindik ez du erabaki zer egingo duen. Entrenatzailea ere berdina izango da Narciso Pavo eta prestatzaile fisiko lana Roberto Hierrok beteko du.

Eskoriatza futbito taldekoak astelehenean hasiko dira aurrendenboraldia prestatzen eta urriaren lehen zapatuan izango dute denboraldiko lehen norgehiagoka. 14 talde egongo dira lehen maila horretan.

Arabako territorialeko taldea ere desagertu egin da eta bere tokia Aramaioko taldeak erosi du.



Mondra futbol taldea

1995-96 denboraldirako

Jende gazte eta itxura berri-tuaz hasiko du Mondra talde-ak 95-96 denboraldia. Irailean jokatuko dute denboraldiko

lehen neurketa, 3an Amore-bietaren kontra. Nedza Zivo-jeciv mutilek orduan era-kutsi beharko dute zer egite-


ko gauza diren. Ilusioa eta gogoia ez zaie falta eta ahal duten guztia ematen saiatuko dira. Zorte on!



DABID LURI
19 urte
Atezaina
Arrasatearra



IGOR AREITIO
20 urte
Atezaina
Arrasatearra



JON PILDAIN
18 urte
Atzelaria
Arrasatearra



SERGIO GARCIA
18 urte
Atzelaria
Arrasatearra




HARITZ ZABALETA
21 urte
Atzelaria
Eibartarra



EDUARDO ZULUETA
24 urte
Atzelaria
Eibartarra



ASIER LUENGO
18 urte
Erdilaria
Arrasatearra



ASIER LOPEZ
21 urte
Erdilaria
Arrasatearra



AGUSTIN CALLEJA
20 urte
Erdilaria
Arrasatearra



BEÑAT APRAIZ
21 urte
Erdilaria
Arrasatearra



J. JOSE JURADO
20 urte
Erdilaria
Eibartarra



RUBEN RUEDA
20 urte
Erdilaria
Arrasatearra



OSCAR SANTOR
17 urte
Erdilaria
Arrasatearra




IGOR TOLA
19 urte
Erdilaria
Arrasatearra




ALBERTO MATALOBOS
17 urte
Erdilaria
Arrasatearra



OXEL APRAIZ
18 urte
Aurrelaria
Arrasatearra



JON ANDER ERRASTI
18 urte
Aurrelaria
Arrasatearra



GORKA OTXOA
24 urte
Aurrelaria
Arrasatearra



RAUL LEIBA
22 urte
Aurrelaria
Arrasatearra



NEDZA ZIVOJECIV
39 urte
Entrenatzailea
Bosniarra



Goikobaluko 30 lagunek Carmina Burana kantatu zuten Donostiako Orfeoiarekin batera abuztuaren 24an belodromoan.

DIARIO VASCO

Goikobalukoak partaide Donostiako Orfeoiaren arrakastan

Goikobaluko kantariak lanpetutako oporraldi arrakastatsua izan dute. Donostiako Orfeoiarekin batera, Carl Orff-en Carmina Burana obra kantatzen pasatu dituzte uztailla eta abuztuko hainbat egun.

Uztailla hasieran Granadan, 29an Geronako Pereladan, abuztuaren 24an Donostiako belodromoan eta 26an Santanderko auditorioan emanaldiak izan dituzte.

Eskaintako emanaldien artean Donostiakoa izan zen gure artean oihartzun handiena izan zuena. Emanaldi hau Donostiako Musika Hamabostaldiaren programa barruan kokatu zen eta obrak berak sortu zuen ikusminaz gain, Ainhoa Arteta sopranoaren, Lassi Virtanen tenorearen eta Carlos Alvarez baritonoaren izen ezagunek emanaldiari interesa gehitu zioten.

170 ahots eta 80 musikari

Donostiako belodromoko tamaina ikusirik, Jose Antonio Sainz de Alfaro orkestra eta abesbatza zuzendariak inoiz baino ahots gehiago elkartu nahi izan zituen abuztuaren 25ean eszenatoki gainean. Hori dela eta, Goikobaluko abesbatzako 30 lagun deitu zituen Donostiako Orfeoiarekin batera Carmina Burana abesteko: Sei baxu, zortzi tenore eta hogeitabi soprano eta kontra-altu. Musika berriz Galiziako Orkestra Sinfonikoko lauorgeri musikariek landu zuten.

Goikobaluko zorionerako, Arrasateko emanaldirako egindako lanaren ondorioz, oso bero zeukaten obra eta entsaio orokorrera joatea besterik ez zuten behar izan, ahotsa berotu eta obra gogora ekartzeko.

Goikobaluko arabera,

Donostiako emanaldiak sekulako arrakasta izan zuen. 3.500 lagun hurbildu ziren belodromora eta sarrerak laister agortu ziren. Belodromoak soinu baldintza onik ez duen arren, obraren edertasunak eta abesbatzak, orkestra eta bakarlarientz eskaintza paregabeak entzulegoa txundituta utzi zuela aipatu dute ere.

Arrasateko emanaldiaren ondoan, Donostiakoan ez zen ume abesbatzarik izan baina Orfeoiako kantariak "ume ahotsa" egiten ere badakitenez, ume beharrik ez zutela izan aipatu zuen Iñaki Olaizola arrasatearrak: "Donostiako Orfeoiako kantariak oso ondo imitatu zituzten umeen ahotsak. Pentsa, orkestrarekin egin genuen lehenengo entsaioan musikariek atzera begiratu zuten umeak non ote zeuden jakin nahian! Egia esan, ume talde bat eramatea oso garestia da eta nagusiek

ume ahotsa imitatzen jakinda, zertarako umeak eraman?"

"Iragarkietako musika"

Musikari handien obrak telebistako iragarkiei esker egiten zaizkio bat baino gehiagori ezagunak eta Carmina Burana ere, iragarki bat baino gehiagotan agertu izan da. Obraren arrakastaren arrazoi bat horixe izan daitekeela aipatu du Iñaki Olaizola, "hasiera eta bukaerako pasarteak oso ezagunak egiten zaizkio jendeari, iragarkietan erabili izan dira eta. Bestalde, oso obra erritmikoa da, entzuteko erraza, berehala hartzen" den horietakoa da. Umei ere asko gustatzen zaie."

Carmina Buranaren emanaldiak amaituta, Goikobaluko Madrilera eta Bartzelonara joango da bi emanaldi eskaintzera. Ondoren, beste obra mardul bat prestatzen hasiko dira Arrasaten eskaintzeko.



ARRASATE

ZERBITZUAK

PROFESIONAL ELKARGOA

Uribarri Etorbidea, 7
Tfnoa: 79 34 40
 ARRASATE

Etxean edozein konponketa egin behar baduzu,
 eta arazoez ahaztea nahi baduzu, deitu berehala!!

- Igeltsaritza
- Arotzak
- Iturgintza
- Elektrizitatea
- Pintaketak
- Dekorazioa
- Aluminio eta PVCzko arotza
- Eta abar...

Eta konponketa eginez, gainera astebeteko oporrak pasa ditzakezu
GUZTIZ DOAN Kanariar edo Balear irletan edo eta Eguzkiaren Kostaldean



Zeramika erakusketa eta salmenta



Uribarri Etorbidea, 22-B
 Tfnoa: 79 81 80 • Faxe: 79 81 80
 ARRASATE

B

edoñako kanposantua elizaren kontran dago orain ere, baina beti ez da oraingoa modukoa izan. 1974ra arte, argazkian ikusten den itxura zuen: Horma baten barruan 123 m²ko saila, luzezka, eta bertan hilobiak sakabanatuta. Sarreraren parean kapera txiki bat zegoen; atea, aterpea, aldea, Kristoa eta kuadro bat zituela gogoratzen dute bedoñarrek. Joan zen mende amaieran eraikia zen eta inolako balio artistikorik gabea. Garai batean abadea bertan lurperatzen ei zen. Auzotarrek, kanposantuaren egoera txarraz kezkatutik, konponketa egitea erabaki zuten. Kapera bera, zein kanpoko horma jausteko arriskuan zeuden. Horrez gain, auzoak zituen beharrak konpontzeko, eraberritze osoa egitea komeni zela iritzi zion auzoko juntak. Elizaren inguruko eginkizunetarako karguen banaketa egiteko Errege egunez izaten zen bilera: familiaz familia ordena jarraituz, atxeroak,



norbait hiltzen zenean kanposantuan zuloa egiteko ardura eta hilkutxa eramatearena izaten zutenak aukeratzen ziren. Ordura artean ordena eta leku jakin barik egiten ziren lurperatzeak eta gauzak hobeto antolatzeko lekua egin nahi zen. Kanposantu osoari itxura bateratua eman nahi zitzaion, bakoitzak nahi zuena egin ez zezan.

Ordurako egina zegoen Apotzagako kanposantu famatua eta hura ikusita animatu egin ziren bedoñarrek ere. Apotzagakoan, hala ere, familia bakoitzak bere jabetzako saila du, eta etxe bakoitzak bere estela. Etxe gehiago egiten den egunerako aukera zabalik uzte aldera, errotazio sistema ezarri zuten Bedoñan. Familia bakoitzak

ez du bere jabetza eta esteletan aldatu egiten da hildakoaren izena. Kanposantua berritzeko hiru bidetatik atera zen dirua: Alde batetik auzoko etxe bakoitzak emandako dirua, Diputazioetik etorritako laguntza eta Arrasateko Udalak eman zuena, guztira 221.000 pta. kosta ziren konponketak. (Datorren astean jarraituko dugu).

**ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.**


**SEGUROS
BILBAO**

● Bizitza
● Etxebizitza
● Autoa
● Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE


☎: 79 70 67

LABURRAK

Z E R N A H I A G O ?

Ana Bruña

Kiroldegiko sokorrista



- **Abuztuan jende gutxi ibiliko zen pizinan, ezta?** Bai, oso jende gutxi.
- **Gutxi gora behera, zenbat egunero?** Ez dakit, baina 30 lagun baino gutxiago.
- **Asko belzten zara hemen?** Bai, nahi beste.
- **Zer behar da sokorrista izateko?** Igeri egiten jakitea eta larrialdietarako prestatuta egotea.
- **Istripurik izan da uda honetan pizinan?** Ez, bat ere ez.
- **Abuztuan, beraz, ez duzu oporrik izan?** Ez, uztai-lean hartu nituen oporrak.
- **Zer moduz portatzen dira umeak uretan?** Beno, ez oso ondo, askotan haserre egin behar zaie.
- **Zer falta zaio kanpoko pizinari?** Belar toki gehiago.
- **Egiten da "top-less"ik hemen?** Jende gutxi egiten du, baina bai, egiten da.
- **Urak ze tenperatura dauka orain?** 21 gradu, oso hotza dago.
- **Lan honen alderik txarrena?** Askotan jendeari haserre egin behar izatea.
- **Pizinan gertatutako anekdotarik gogoratzen duzu?** Egia esan, ez.
- **Zertan zara trebea?** Ez naiz ezertan trebea kontsideratzen.
- **Ezer kolekzionatzen duzu?** Egutegiak gordetzen ditut.
- **Zenbat ordu egiten duzu lo?** Zortzi bat.
- **Igerilari bat?** Lopez Zubero.
- **Kafea, azukreaz ala barik?** Azukreaz.
- **Bideo dendan hartu duzun azken pelikula?** "Speed"
- **Gustatu zitzaizun?** Bai, asko.
- **Zein ogitarteko dituzu gustokoenak?** Lukainkarenak.
- **Zuritoa ala kalimotxo?** Zuritoa.
- **Marixuko jantzia prest daukazu?** Ez, baina prestatzen hasi beharko naiz!
- **Babes-kremarik erabiltzen duzu?** Bai, 4 zenbakikoa.

Argazki lehiaketa

Zabalik jarraitzen du "Gazteok bizikletan" IV. Argazki Lehiaketan lanak aurkezteko epeak. Lehiaketa bi kategoriatan dago banatuta eta Deba Garaiko gazteei zuzenduta. Lehenengo kategoria 14-18 urte bitartekoapartaidentzat da eta bigarrena 19-35 urte bitartekoentzat. Argazkiak zuribeltzean nahiz koloretan aurkeztu ahal izango dira urriaren 11ra arte.

Udalekuak irailean

Txatxilipurdi elkarteak udaleku irekiak antolatu ditu irailerako ere. 3 urtetik hasi eta 14 urtera artekoak zuzenduta. Udaleku hauek arratsaldetan burutuko dira, ikastolan hasi berri diren umeen ordu libreak atseginago egiteko. Bi txanda izango dira, arratsaldeko 3etatik 6etara.

Bestalde, udalekuak auzoetara zabaltzeko asmoa du Txatxilipurdik, Musakola, Erguin, San Andres eta Santamainara. Auzoetako udaleku hauek burutu daitezten, talderen bat sortu beharko litzatekeela adierazi dute Txatxilipurdiko arduradunek.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.


Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

• ESAERA •

“Negozioetan ausardia
da lehena, baita
bigarrena eta
hirugarrena ere”


EZEZAGUNA

• JEROGLIFIKOA •



Zenbatean erosi duzu?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arzamendi, Parrokiako organista. 6. HAROkO kontsonanteak. 8. Eraikin. 10 BAI hitzaren laburpena. 11. (Ald.) Mota. 12. Euritako. 13. Lutezioa. 14. Zein tokitako. 16. Garbai. 18. Errepikatuz, dardaraz. 19. Eusko Langileen Elkartasuna. 20. Barazki egoiak birrinduz egina.

Bertikalak 1. Dohainik. 2. (Ald.) Lur-eremu lau eta zabala. 3 Sei erromatar erara. 4. Deabruen egoitza. 5. Edozein gauza lau eta zirkularra. 6. Bizitza galdu. 7. (Ald.) Erraz erortzen dena. 9. Zerbait galtzetik babestu. 15. Sugar. 17. Malagako ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Jantzi garestiak erabiltzen dituzu, baina dotorea ote zara?

Taurus Ez zaizu komeni zinemara bakarrik joatea.

Gemini Lan-kontuak ongi joango dira. Amodioa, berriz, txarto.

Cancer Zoriona gertu daukazu baina pazientziatz hartu.

Leo Arazoak dituzu. Psikiatrarengana joan beharko zenuke.

Virgo Itxaropenak bazenituen, baina egia esan abuztuan ez duzu ezer egin.

Libra Musuzapia ateratzen duzun bakoitzean ingurukoek alde egiten dute.


Scorpio Hizketarako duzun erraztasunak benetan liluratzen nau.

Sagitaris Lagunak kale egin ditu. Noiz konturatuko zara?

Capricorn Kezka ugari duzu baina loa behintzat ez dizute kentzen.

Aquarius Gaztetan etxezuloa zinen. Zahartzaroan, berriz, kaletxorria.


Piscis Urteen bueltan ezetz esaten ikasi duzu. Bada zerbait.



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnok: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

TELEBISTAREN TXOKOA



Dekoratu berriak prestatzen

Arrasate Telebistako lankideek eskulanean telebista lanetan bezain ondo konpontzen direla erakutsi digute egunotan.

Urritik aurrera ATBren aurpegia berriztuta agertuko dela eta, dekoratu berriak prestatzen ari dira.

Buzoa jantzi eta gurpilak eta arraultza kaxak kolore biziz margotzen ari dira hainbat programetan erabiltzeko. Lehen erabiltako mahai eta panel zaharrak ere, pintura geruza berri batez estali eta beste itxura bat hartu dute.

KOMIKIA

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

PROGRAMAZIOA

"NOR NORI ROCK"
musika saioa urritik
aurrera

Urritik aurrera programa berriak ikusteko aukera izango duzue Arrasate Telebistan, horietako bat "Nor Nori Rock" musika programa hamabostean behin asteazkenero 9.30etan ikusi ahal izango duzuen.

Kaitin Allende eta Lierni Uribarren kazetariak aurkeztuko duten saioan Euskal Herriko nahiz Mondragoeko talde onenak gertu gertutik ezagutzeko aukera izango duzue, platoan bertan egingdako elkarrizketen bidez.

Elkarrizketez gain, saio bakoitzean atzerriko talde bati buruzko erreportai sakon eta mardula izango da ikusgai, baita azken hilabete hauetan Arrasaten eta inguruan egin diren kontzertuen grabaketak ere.

Musika programa hau urtarrila aldera hasi ziren prestatzen Joseba Lasa eta Monika Montero arrasatearrak eta Lurta Nikolas getxotarra. Produkzio lana berriz, Estitxu Unzurrunzaga arrasatearrak eta Ihintza Arrieta baionarrak egin dute, Andoaingo Irudi eta Soinu eskolan ikasketak amaitu eta gero. Kamaran berriz, Arantxa Alonso arrasatearra aritu da.

SOLUZIOAK

Merke-merke:
Jergifikoa:

Ma.
7. Rokore, 9. Zaindu, 15. Gar, 17. Irial, 3. VI, 4. Ifernu, 5. Disko, 6. Hilt.
Bertikalak: 1. Debalde, 2. Adar, 19. ELA, 20. Pure.
Kl. 13. Lu, 14. Nongo, 16. Damm, 18. Edifizio, 10. Ba, 11. Esalk, 12. Ater.
Horizontalak: 1. David, 6. HR, 8.

Etxebizitzak

- **Santa Polan bungalow-a eta Torreviejan apartamentua alokatzen da** hamabostaldika edo hileka, hondartzatik gertu dago, abuztuan eta iraillean. Tfnoa: 77 13 26.
- **Bi oheko gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska gazte eta erantzuleak** sukaldea erabiltzeko aukera duen logela alokatuko luke edota pisu bat konpartituko. Tfnoa: 77 00 16. Rosa. Gaueko 8etatik 10etara.
- **Beha solairua alokatzen da** Grupo San Juanen medikuen kontsulta edota profesionalendako. Dei egin gauez 79 14 29 tfnoara.
- **Neska bat behar da** pisua osatzeko irailetik aurrera. Tfnoak.: uztailean deituz gero 79 11 85, abuztuan 74 13 38.
- **Etxea salgai Aretxabaletan**, 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Altzari guztiekin. Prezio interesgarria. Dei egin gauez 79 67 26 tfnora.
- **Pisua alokatu nahi nuke Arrasaten** edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 00 27. Txotxe.
- **Larrea plazan pisua alokatu nahi dut.** Tfnoa: 79 36 79.

Lana

- **Bizikleta mekanikari kanadiarra**, bizikletak konpontzeko prest. Tfnoa: 79 97 38.
- **Klase partikularrak ematen dira** uztailean, euskaraz nahiz erdaraz. UBI mailara arte edozein arlo. Tfnoa: 79 4675 / 79 23 36. Amaia.
- **Neska prest garbiketarak egiteko.** Tfnoa: 79 37 68.
- **Informatikako ikasleak udan OHoko klaseak** emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.

- **Frantseseko klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 27 06.
- **Injeneritzako kimikako klaseak jasoko** nituzke abuztuan. Tfnoa: 79 47 77. Xabier.
- **Emakume erizain laguntzaileak** pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 53.
- **Injeneritzako ikasleak** matematika eta marrazketako klaseak emango nituzke. Tfnoa: 79 16 19 (Astelehenerik ostiralera) eta 19 27 16 (Asteburutan). Valen.
- **Gazte kanadiar batek ingelesko praktikako klaseak** emango lituzke. Dei egin 79 97 38 tfnora.
- **Neska batek goizetan** umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 68 18. Nerea.
- **Ile apainketan diplomatu gaztea** abuztutik aurrera lan egiteko prest. Tfnoa: 79 63 18. Rosa.
- **Emakume euskalduna** umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska bat behar da** domeketan denda baten lana egiteko. Kotxea beharrezkoa da. Tfnoa: 79 47 85. Emilio.
- **Neska gaztea** taberna, jatetxe edo denda batean lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 38. Leire.
- **OHoko klase partikularrak** emango nituzke. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 97 38. Leire.
- **Neska euskaldun eta langilea** eskaintzen da edozein motako lanak egiteko (etxeko lanak, etab.). Dei egin 76 64 60. Alaitz.
- **Neska gertu etxeko lanak egin** edo umeak zaindazeko. Goizez lan egingo nuke. Tfnoa: 79 68 18. Nerea.
- **Ingeleseko klaseak emango nieke** EGB, 1. eta 2. REMeko eta COUko ikasleei. Mekanografia eta informatikako klaseak ere emateko gertu. Tfnoa: 79 68 18. Agurtzane.
- **Ile apainketan diploma ateratako neska** gaztea lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81

Salerosketak

- **Bigarren eskuko soinu txikia erosi nuke.** Dei egin arratsalde 77 04 98 tfnora.
- **Kitarrako klaseak hartuko nituzke** uztailean. Tfnoa: 79 20 24.
- **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira.** Dei egin 5etatik 9etara 79 22 86 tfnora.
- **XR-2, SS-Y kotxea saltzen da.** Zuri kolorekoa eta egoera onean dago. Tfnoa: 71 42 19.
- **44-45 zenbakiko Doctor Martens botak** salgai. Beltzak dira, 10 zulodunak. Tfnoa: 79 97 38. Bob.
- **Suzuki deskapotea** (kapota gogorra) salgai. 5 abiadura. Tfnoa: 79 03 17.
- **GAC motor txikia prezio onean salgai.** Tfnoa: 79 81 70. Ordu 2etatik 5etra.
- **Bigarren eskuko soinua erosi nuke.** Tfnoa: 79 12 70

Denotarik

- **Graduatutako betaurreko metalikoak galdu zaizkit** funda beltz batekin autobus geltokian edo inguruan. Tfnoa: 79 99 03.
- **Urrezko eraztun bat galdu nuen** San Juanetan Santamainako aldapan (Kanposantuaeren parean). Tfnoa: 79 91 77.
- **Ume pultsera bat galdu da** ekainaren 10eko asteburuan. Tfnoa: 79 70 89.
- **Santa Teresa de Jesus, mila esker.** F. G.

Aste Gazte

Lana

• Donostiako Udalak Ingu-rugiro Teknikari bat kontratatzeke deia egin du. Zientzietan lizentziatua izatea eskatzen da. Epea: irailak 15.

Bekak

• "Turismo de España" beken deialdia: a) Estatu espainiarrean turismo praktikak zein ikerketak burutzeko 10 beka. b) Atzerriko turismo bulegoetan praktikak egiteko 26 beka. Betebeharrak: titulazioa (Enpresa eta Ekintza Turistikoetan Teknikaria edo uni-

bertsitate goi mailako besteren bat turismo arloan) eta hizkuntzak. Epea: irailak 17.

• Euskal Herriko Unibertsitateak 95-96 ikasturterako 212 lankidetzak beka konbokatuko ditu. Bekaren zenbatekoa 350.000 ptakoa izango da. Epea: irailak 29.

• New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoa prestatzeko lau beka. Arloak: Erakusketen Antolaketa, Erregistroa, Argitalpenak eta Ardura Saila. Baldintzak: titulazioa (Artearen Historiako lizentziatura, Arte Ederrak, Bibliotekologia...) eta

ingeleseko ondo jakitea. Epea: urriak 10.


• 95-96 ikasturtean unibertsitate maila eta goi-mailako beste ikasketak batzutarako (dantza, arte dramatiko, arte plastiko, diseñu ikasketak, soinketa, turismoa...) beka deialdia. Epea: urriak 16.

Irrati ikastaroa

• Gazteei zuzendutako Irrati ikastaro praktikoa, Arrasate Irratian. Ostiraletan, arratsaldeko 7etatik 9etara. Inskripzioak Gazte Bulegoan.

"... haurra izatea ondo dago haurtzaroan, eta hamazortzi urterekin gazte tonto bat izatea ere konprenitzekoa da, baina hogeitamalau urterekin..."

BERNARDO ATXAGA.
"ZERUAK"



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



ORDUA DA!



EZ GALDU EUSKARAREN TRENA!

- Euskalduntze maila guztiak
- Alfabetatze
- Ikastaro bereziak

Matrikula epea: irailaren 4tik 13ra arte

Plaza mugatuak.

Beka sistema daukagu!



UDAL EUSKALTEGIA • ARRASATEKO UDAIA

Informazio gehiagorako:

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) • Tfnoa: 79 70 77 • 79 77 88

Truke Operazioa

Amuebladora Mondragonesa

EKARRI DIZUGU
KOLTXOI ZAHARRA...



.. ETA 10.000 PEZETA
ARTE DESKONTATUKO

Dizkizugu Zure Atsedan
Sistema Berrian

FLEX



Eta loa kenduko
ez dizuten prezioak
zatoz galdetu!



grupo



Amuebladora
Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 MONDRAGON
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 MONDRAGON